

TOLOSAKO UDALAREN JABETZAKO ERAIKINAK BERRITU ETA ERABILERA ANTOLATZEKO IRIZPIDE OROKORRAK JASOTZEN DITUEN EGITASMOA ONARTZEA

Egitasmo hau 2017-2018an burututako Udal ekipamenduen diagnostikoaren edo azterketaren jarraipena da.

Aurreko fase batean, Udal ekipamenduen azterketa eta bertan burutzen diren jardueren diagnostikoa osatu zen. Aldi berean, eraikin eta jarduera horiek berrantolatzeke proposamena lantzen hasi zen eta Udal ordezkari zein teknikariei aurkeztu zitzaion.

Behin behinean landutako proposamen hori zuzendu eta osatzeko planteamenduarekin abiatu genuen 2. fasea, zeinaren emaitza dugun Hiritik At enpresak idatzi eta gaur onartu asmo dugun "Tolosako udal ekipamenduak. Berrantolaketakarako Plan Estrategikoa" dokumentua.

Egitasmo honen lanketa udal ordezkari eta teknikarien parte hartzearekin burutu da eta beraien iritzi eta aportazioan oinarrituko dokumentua da.

Herritarrei dagokionez, planteamendu orokorra Tolosatzen prozesuaren baitan burututako saio monografiko batean aurkeztu eta herritarren ekarpenak jaso ziren. Edonola ere, eraikin bakoitzaren eta bertako jarduerak zehazteko aurrera eraman beharreko etorkizuneko diseinu-egitasmo zehatz desberdinen baitan kokatu beharko dira herritarrekin aurrera eraman beharreko parte hartze saio nagusiak.

Onartu asmo den egitasmo honek 3 atal nagusi ditu:

- + Tolosa kultura! Planteamendu orokorra
- + Udal ekipamenduen berrantolaketakarako proposamena
- + Eraikin gakoentzako proposamen zehatzak

Epe luzerako egitasmoa izanagatik, eta etorkizunari etengabe begira jardutea eskatuko duelako, unean-uneko udal gobernuaren bultzadaz gain, ordezkari politikoen aldetik ahalik eta kontsentsu eta babes gehien eskatuko duen egitasmo baten aurrean aurkitzen gara.

Horregatik udalbatzaren aurrera ekartzen dugu gaurkoan egitasmoa, hasieratik ahalik eta babes gehien izan dezan.

Tolosa, 2019ko maiatzaren 30a.

Olatz Peon Ormazabal
Tolosako alkatea